

## **ALKATE ETA UDALBATZAKO LEHENDAKARIAREN** **DEKRETUA**

2017ko martxoaren 1etik indarrean dago Gasteizko udal honetako HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ARAUDI ORGANIKO berritua, aipatutako egunean ALHAOko 25 zenbakian argitaratuta. Beraz, indargabetuta geratzen dira Herritar Erakundeen Udal Erregistro bat sortzeko eta zaintzeko obligazioak.

Horrenbestez,

### **XEDATU DUT:**

Lehena: Erregistro hori ixteko agindua ematea. Ezin izango da erregistro horretan izen-emate gehiago egin 2017ko otsailaren 28. egunetik aurrera.

Bigarrena: Izena emateko edo eguneratzeko dosierren tramitaziorako izena eman duten erakundeek bidalitako agiriak ez dira beharrezkoak izango udal administrazioak eginkizunak betetzeko, eta beraz, dagozkien titularrei itzuliko zaizkie, hala eskatzen badute 2017ko ekainaren 30a baino lehen. Egun horretatik aurrera, itzuli ez den dokumentazioa suntsitu egingo da.

Hirugarrena: Ekitaldi hau amaitu ondoren, Erregistroan dauden izen-emateak baliogabetzeko tramiteei emango zaio hasiera, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 6an.

**ALKATE ETA UDALBATZAKO LEHENDAKARIA**

Gorka Urtaran Agirre jauna